

**2015EKO AURREKONTUAREN
MEMORIA ETA EZAUGARRI
NAGUSIAK**



2015EKO AURREKONTUAREN MEMORIA

Hona hemen 2015eko aurrekontua, legealdiko azkena. Aurrekontua, finantza administrazioaren tresna moduan, udal jardueraren plangintza egiteko oinarria da, baliabide erabilgarrietatik abiatuak, horiei emango diegun destinoa, urte osoan egin asmo ditugun proiektuak, zerbitzuak eta jarduerak zehazte aldera.

Ekitaldi honetako berritasuna da AUKEA sartzen dela Udalaren egiturari, orain arte erakunde autonomo baten estatusaz eta izaeraz kudeatua, eta orain Udalaren egiturara pasatuko da eta Udalaren egiturakoa izango da. Kudeatzeko era aldatzearen helburua da efizientzia hobetzea (haren kostuak gutxitzea dakarten sinergiak), kirolari buruzko zerbitzuak ematean kalitatea hobetzeaz gain.

Legealdiko azken aldi hau zuzenean eta etengabe eragiten ditugun gertakari ekonomikoez josita egon da.

Diru publikoak banketxeak erreskatatu izanak eta zor publikoak, banketxeen esku dagoena, beste edozein gasturen aurrean, lehentasuna izan dezan, konstituzioa aldatu izanak eragin negatiboa eta zuzeneko izan du udaletan. Zor horren oraino eta geroko ordainketa bermatzeko, Aurrekontua Egonkortzeko eta Finantzari Eusteko Legea moduko legeak onartu dituzte eta, horien ondorioz, udalok autonomia galdu dugu eta Madrilen erabakiaren mende geratu gara, maniobra marjinarik gabe.

Ez gaude prest gure sistema publikoan eskumen gehiago gutxitu diezaguten. Eta ez gaude prest banketxeek, espekulatuzaileek eta multinazionalak sortu duten krisiaren zama langilei egokitu dakien.

Ez ditugu gure udalak baliabiderik gabe ikusi nahi. Baina horren guztiaren konponbidea ez da herritarrei zerga karga handiago bat sortzea, baizik eta behartuta gaude oreka bat gordetzera. Diru-sarrerak lortzeko orduan, gehien daukatenek ahalegin bat egin beharko dute gutxien daukatenean alde. Baliabideen birbanatzea errealitate bihurtu behar da. Behartuta gaude lan egitera, baliabide gutxiago duten herritarrek bizi baldintza duinak izan ditzaten.

Bestalde, garrantzitsua da azpimarratzea, kontrakoa den testuinguru ekonomiko batean, 2015eko aurrekontuaren bidez oinarritzko lau helburu finkatu ditugula: inbertsioa bultzatzea, gizarte prestazioak mantentzea eta horiek handitzen saiatzea, zorpetzea nabarmen murriztea eta udal tasak izozteko ahalegina egitea. Guztion ongizatearen egonkortasuna galtzea dakarten etengabeko erasoak eta mehatxuak ikusita eta herriko jarduerak bizi duen esparru ekonomikoak segurtasun gabeziako zantzu argiak baditu ere, eutsi egiten diogu posizio egonkor eta sendo bat izateko ahaleginari eta gure usteari, herritarren eskakizunei eta beharrei erantzuteko.

Zergak eta tasak modu orokorrean ez igotzeko erabakiak garbi asko erakusten du zer-nolakoa den Udal honen laguntza eta konpromisoa arrasatearrekiko.



Fagor Electrodomésticos, S.Coop. lantegiaren porrotak herriko ekonomian eragin eta urte bat geroago, likidatutako enpresaren aktiboak Cata enpresak duela gutxi erosi ondoren, esan genezake, behar den moduko eta zuhurtziaz, ematen duela itxaropen berriak irekitzen ari direla familia askoren egoera zailari aurre egiteko. Bereziki arduratzen gaitu langabeziaren gaitza bizi duten 1.694 herritarretako bakoitza.

2014ko aurrekontuan, Fagor Electrodomésticos, S.Coop. itxi izanak ekarri zuen kolpe latza arintze aldera, enplegu plan bat jarri genuen abian, iraupen luzeko langabeen kontratazioa sustatzeko, bai Udalaren aldetik bai herriko enpresen aldetik. Unibertsitatearekin batera “Lanbai” izeneko enplegu azoka eta tituludun berrientzako beka lerro bat ere antolatu genuen, SAIOLANen laguntzarekin. Enpleguaren aldeko plan horrek jarraipena du 2015eko aurrekontuan.

Beste gai batzuen inguruan, datu positibo moduan, azpimarratzen dugu Udal Finantzaketa Foru Fondoak, udalaren baliabide nagusia, 14,83 milioi euro gehitzea espero duela 2015eko urtean, eta Gipuzkoako udal guztien artean 2014an 414,75 milioi euro banatetik 429,58 milioi euro banatzera pasatuko da 2015ean. Horren eraginez, 2015eko aurrekontuan Arrasaten 443.123 euro gehiago edukiko dugu, hau da, 2014an 12.451.236 € izatetik 2015ean 12.894.239 € izatera pasatuko gara.

Era berean, 35 urtean zain egon eta gero, ematen du Udalaren Lege bat izango dugula 2015ean; edozelan ere, formazko akatsekin jaio da, izan ere, udal kopuru handi batek ez dute parte hartu. Finantzazioari dagokionez, Legeak argitasun falta du, hau da, arauak berak udalei aitortzen dizkien eskumenak garatzeko behar beste finantzaketa bermatzeko orduan.

Gure lehentasunean pertsonak sartzen dira eta gizarte egoera ahulenean daudenen beharrak (pertsona nagusienak, gazteenak, etorkinenak, ezintasuna duten pertsonenak...) asebetetzen jarraituko dugu, aukera berdintasunari bide ematen, integrazioa bultzatzen, aniztasuna lantzen, kultura sustatzen. Azken batean, bizikidetzaren egonkorragoa eta duinagoa lortzea. Hala, gutxien daukatenen beharrak asebetetze aldera, gizarte izaerako laguntzak eta programak mantendu ditugu, eta, horretarako, legegaldiaren hasieratik hartu dugun konpromisoarekin jarraituko dugu, beharrezkoa izanez gero, baliabide ekonomikoak gehitzeko konpromisoa, hain zuzen ere.

Inbertsioen atalean, udal azoka berritzea azpimarratu behar dugu, biziberritze estrategikoa, 2015-16 ekitaldietan egingo duguna. Bizi kalitatea eta ongizatea sustatuko dituen azoka bat gura dugu, elikadura osasungarria eta lehen sektorea, bidezko merkataritza, bigarren eskuko produktuak, artisautza, kultura ekitaldiak bultzatuko dituen, aisialdirako eta jokorako aukerabideak eskainiko dituen.

Ekitaldi honetan ere San Josepe auzoa berriro urbanizatzeko eta Udala auzoa urbanizatzeko obretan lehen fasearekin jarraituko dugu. Halaber, Zarugalde osteko mende-hegalari eusteko obrekin jarraituko dugu eta udal artxibo berria jarriko dugu abian.



Makatzena auzoko birgaitze lanak amaitutakoan, auzoko bizilagunek egina, Udalak beregain hartuko du auzoaren atzealdeko errepidea zolatzeko lana eta Hondarribia kalea eta Makatzena auzoa lotuko duen igogailuaren bideragarritasunerako gestioekin jarraituko dugu.

Meatzerreka auzoan Gipuzkoa eta Bizkaia lotzen dituen errege bidearen pasabidea errekerperatuko dugu, Ugaldeazpi baserriaren ondoan, oinez edo bizikletan ibilbide historiko batez gozatzeko. Leku horretan, eta ura eta saneamendua hornitzeari dagokionez, auzoa eta herrigunea lotzen dituen bidearen zatia egingo dugu.

Sekulako ahaleginak egiten ari gara Arrasaten euskararen ikaskuntza eta euskararen erabilera sustatzeko. Funtsezkoa da gure hizkuntza politikan baliabideak eskaintzea herritarrek euskara ikasi dezaten. Helburu horrekin leku egokiak behar ditugu eta 2015ean Udal Euskaltegi berria egokitzeko proiektuari ekingo diogu.

Mugikortasun planari dagokionez eta TAO Unibertsitatearen inguruan ezarri eta gero, proba moduan jarri dugu abian sistema hori Ferixalekuan. Apurka-apurka udalerriko beste leku batzuetara zabalduko dugu 2015ean.

Bidezatiari hiri izaera handiagoa emateko, Foruen plazari eta Udala plazari dagokion Takolo-Goiru zeharbidearen proiektuaren zatia hasiko dugu. Zonalde hori oinezkoentzat jartzea planteatzen dugu, ibilgailuentzat sarbide arautuz. Halaber, Etxaluze eta Musakola lotuko dituen bidegorriaren proiektua jarri dugu abian, udalerrian bizikletentzako bide bat ezartzeko.

Udalak garabiaren zerbitzuak udal langileen bitartez gauzatuko ditu 2015etik aurrera. Lokal bat egokituko dugu Zalduspen, bide publikotik udal garabiak eramandako ibilgailuak gordetzeko.

Kulturaren eremuan gure apustua argia da, Erlojuaren Eraikina kultura mintegi bihurtu gura dugu, herriko talde eta elkarte gehienek egoitza berean jardun dezaten. Gaur egun eraikin horretan hauek guztiak daude: Lore Gazteak eta Txikitxus-Arrostaitz dantza taldeak, Doke antzerki taldea, Trikitixa eskola, Txistularien elkarte, gaiteroak, txalapartariak, Bertso Eskola, Goikobalu... 2015ean errealitate bihurtuko da eraikinaren proiektu orokorra. Epe ertain-luzerako helburua da Arrasate Musikal eraikin horretan behin betiko egoitza izatea.

Arrasaten hondakinak gaika biltzeko sistema berria 2015eko urtarrilean errealitate izango da. Hondakinen mahaian lortutako akordioan finkatutako helburuak lortzeko ezarri dugu sistema berria; helburua da birziklatze maila handiena lortzea. Hau da, gutxienez gaikako bilketaren %70 lortzea.

Ezberdinen arteko akordioa lortzeko, parte hartzearen kultura hartu dugu. Proiektuak onartu ditugu, Plan Orokorra, Andradetan, TAO Unibertsitate aldean, Hondakinen Mahaia, Bizikletaren Mahaia, jaiak... moduko ekimenak. Parte-hartze prozesuarena da ordezkartza demokrazia baterantz doan politika kulturako kontzeptu bat, non-eta herritarren parte-hartzea funtsezko tresna bat den. Jokaera politikoetan eta sozialetan aldaketa bat eskatzen du horrek. Konpromisoa hartzen dugu parte-hartze prozesu horiek biziki bultzatzen jarraitzeko.



Laburpen gisa, hona hemen 2015eko aurrekontuaren lerro nagusiak:

1. Kontrakoa den testuinguru edo egoera ekonomiko batean, pobrezia eta langabezia maila handiez eta onartezinez, aurrekontuaren bidez **oinarrizko udal zerbitzuak ematea bermatu nahi dugu, bereziki gizarte egoera ahulenean dauden taldeak babestu nahi ditugu.**
2. **Apustu irmoa**, beste administrazio eta erakunde batzuekin elkarlanean, **enplegua sortzearen alde**, uste baitugu oinarrizko elementu bat dela Arrasateko bizilagunentzat duintasun, egonkortasun ekonomiko eta ongizate maila desiragarriak lortzeko.
3. **Gastu arrunta arrazionalizatzeko prozesua mantentzea**, baliabide gehigarriak sortu ahal izateko giltza baita, zerbitzuen kostuak murriztuz, azpikontratatuak zerbitzuetan **eraginkortasuna hobetuz**, aurrezteko aukerak antzemanaz eta baliabideak hobeto erabiliz, langileei eta administrazio funtzionamenduari buruz.
4. **Diru-sarrerei buruz, udal zergen bidez herritarren zerga karga ez gehitzeko erabakia**, beste bide batzuez baliabide handiagoak lortzeko ahaleginak eginda, hala nola, Udal Finantzaketako Foru Funtsetik eta zerga iruzurraren aurkako (ikuskapena) borrokatik datozen diru-sarrerak, dagokion finantza egonkortasuna lortze aldera.
4. **Finantza zorra kontrolatu eta murriztea.** Zorpetzea gehitzeko aukera albo batera utzita, orain kostua handia duelako eta legezko eskakizunak ere zorrotzak direlako, 2015eko aurrekontuaren bidez oraingo legealdiaren joarekin jarraitzen dugu, banketxeekin dugun zorraren zenbatekoa murrizteko joera.
5. Inbertsioetarako diren baliabideen bolumena berreskuratzeko ditugun zailtasunen aurrean, eta udalerrian planteatuko azpiegitura proiektu eta beharrei erantzun ahal izateko aukera gisa, **inbertsioen periodifikatzearen formula bultzatu eta erabiltzea**, plangintza egoki baten bidez, aldi batekoa eta kuantitatiboa, urte anitzeko aurrekontu desberdinen kontura exekutatu daitezten.



2015eko aurrekontuaren alderdi kualitatibo esanguratsuenak aipatu eta gero, aurtengo ekitaldirako aurreikusitako zenbatekoak erakutsiko ditugu, bai Udalarena bai Iturbide Egoitza erakunde autonomoarena ere. Hona hemen aipatutako zenbakiak:

Udalaren aurrekontua	31.525.278,80 euro
Iturbide Egoitzaren aurrekontua	3.537.044,71 euro

Aurrekontu Orokor finkatua edo bi aurrekontuak batuta, barne transferentziak kenduta (defizita estaltzeko ekarpenak, eta Udalaren fakturazioak, erakunde autonomoari ur eta zabor zerbitzuak emateagatik) kopuru hauxe dugu, **34.945.603,78 €**.

Alderatuz gero 2015eko ekitaldiko zenbatekoak eta 2014rako onartutako aurrekontuaren kopuruak (alderaketa errazteko, batu egin ditugu Udalaren eta AUKEAren 2014ko datuak), koadro hau izango dugu:

ERAKUNDEA	AURREK 2015	AURREK 2014	ALDAERA	2015/2014
Udala	31.525,79	32.346,60	-820,81	-2,54%
Iturbide	3.537,04	3.403,67	+133,37	+3,92%
Aurrek. Orok.	34.945,60	35.529,10	-450,13	-1,27%

(Mila eurotan adierazitako kopuruak)

Kopuruen lehen azterketa batek berretsi egiten du memoriaren hasieran adierazitakoa, hau da, gastuei eta diru-sarrerei eutsi izanak (zergarik ez igotzea eta zorpetzea kontrolatzea), 2014ko ohiz kanpoko diru-sarrera batzuk ez ditugunez, horrek murriztea dakar iazko aurrekontuaren aldean eta behartzen gaitu lehentasunen eztabaida planteatzen. Ildo horretan, berriro ere errepikatuko dugu gobernu taldeak gastu sozialaren alde jokatu duela argi eta garbi.

Iturbideren aurrekontuan, berriz, igoera nabarmena dugu. Kasu honetan, langileen aurrerakinei buruz kontabilitateko irizpide aldaketa bat alde batera utzita, benetan ez dakarrena aldaketarik, kopuruen argazkiez harago, aldaketak edo igoerak jatorria du emandako zerbitzuen (garbategia, medizina, eta abar) ratioen edo maiztasunaren hobekuntza batean; baina horiek ez dute eragiten Udalak estali beharreko defizitean, Diputaziotik datorren diru-laguntza handiago batekin finantzatzen direlako.

Orain eta hemen, Udalaren aurrekontuaren gastuen eta diru-sarreraren kontu-sail nagusiak aztertuko ditugu zehatzago, eta ITURBIDE erakunde autonomoaren aurrekontuari dagokionez, erakundeak, berak, idatzitako memorian dator azterturik, agiri honetan bertan.



Gastuen atalean, Udalaren aurrekontua aztertzen hasiko gara.

GASTUEN AURREKONTUA - 2015

2015eko ekitaldirako pentsatutako zenbatekoa guztira da 31.525.278,80 euro, eta %2,54ko jaitsiera du 2014 urterako hasieran onartutako AUKEAren eta Udalaren aurrekontuen batuketa finkatuari buruz.

Aurreko ekitaldiari buruz 2015eko aurrekontuaren kapituluz kapituluko eboluzioa aztertu ondoren, koadro hau daukagu:

KONPARAZIO KOADROA, 2015EKO AURREK. - 2014KO HASIER. AURREK (UDALA + AUKEA)

Kapitulua	AURR. 2014	%/GUZ	AURR. 2015	%/GUZ	Aldea	15/14
I Pertsonal gastuak	10.196,4	31,52%	10.336,8	32,79%	140,4	1,38%
II Ondasunak eta Zerbitzuak	10.528,4	32,55%	9.973	31,63%	-555,4	-5,28%
III Interesak	64,7	0,20%	38,3	0,12%	-26,4	-40,80%
IV Transfer. Korront.	5.025,9	15,54%	4.882,4	15,49%	-143,5	-2,86%
VI Inbertsioak	4.373,3	13,52%	4.283,8	13,59%	-89,5	-2,05%
VII Kapital Transf.	820	2,54%	783,9	2,49%	-36,1	-4,40%
VIII Finan. Akt. Aldak.	282	0,87%	265	0,84%	-17	-6,03%
IX Mailegu amortiz.	1.055,9	3,26%	962,1	3,05%	-93,8	-8,88%
GUZTIRA	32.346,6	100%	31.525,3	100%	-821,3	-2,54%

(Mila eurotan adierazitako kopuruak)

Koadro honetako lehen azterketaren bitartez, portzentaje terminoetan, hau ikusiko dugu, Udalaren gastu orokorrari dagokionez, ia aldatu gabe mantentzen da gastuaren banaketa gastu arruntaren, kapital gastuaren eta finantza zorraren ataletan. Agian aipatu behar da langileen gastuen pisua handitu izana (+1,27 portzentaje puntu, enplegua sustatzeko programetan kontratazioak egitearen ondorioz), eta bestaldetik jaitsi izana gastu eta zerbitzu arruntaren pisua (-0,92 portzentaje puntu) eta maileguengatik zorretik datozen interesak eta amortizazioak direla-eta ordaindu beharreko kopuruen pisua apur bat jaitsi izana (-0,29). Azken batean, iazkoaren oso antzeko gastu egitura bat daukagu 2015ean.



Laburtzeko, hona hemen 100 eurotik zenbat eta zertan gastatuko duen Udalak 2015ean:

- **32,79 €** erabili dugu **personal gastuei** aurre egiteko, eta hor sartzen dira Udalean egitekoak betetzeko liberaturik dauden udalkideen ordainketak.

- **31,63 €** behar dugu **udal zerbitzuen funtzionamendutik** sortzen diren gastu arruntei erantzuteko.

- **3,17 €** dira **banketxeekin** hartutako konpromisoak betetzeko (**maileguen interesak eta amortizazioak**).

- **15,49 €** dira **transferentzia arruntak edo diru-laguntzak** finantzatzeko; horietatik **8,11** euro dira udalen arteko zerbitzuen kuotak eta Iturbide Egoitzaren defizita (azken hori berez udal zerbitzua da).

- **13,59 €** dira **inbertsioen zuzeneko exekuzioa** finantzatzeko.


- **2,49 €** dira **beste administrazio edo erakunde batzuek egindako inbertsioak diruz lagundu edo elkarrekin finantzatzeko.**

- **0,84 €** erabiltzen da finantza aktiboak erosteko, hala nola, **langileei aurrerakin itzulgarriak emateko** (diru-sarreraren kopuru berdina) eta **Garaia S.Coop.ren kapitalari ekarpena egiteko.**


Honekin batera doazen grafikoetan 2015eko gastuen aurrekontuaren kapituluz kapituluko eboluzioa ikusi dezakegu, 2014ko aurrekontuaren aldean, eta 2015eko gastuaren portzentaje banaketa ere bai, sailkapen ekonomikoaren arabera edo, beste era batera esanda, gastuaren izaerari jarraiki.



2014 ETA 2015EKO AURREKONTUAREN GASTUAK ALDERATZEA KAPITULUZ-KAPITULU



GASTUA BANATZEA KAPITULUZ-KAPITULU - 2015EKO AURREKONTUA



Orain gastuen aldaera nagusiak eta 2015eko aurrekontuaren berritasun aipagarrienak aipatuko ditugu, 2014ko ekitaldiko kopuruen aldean, sailkapen ekonomikoaren edo gastuaren izaeraren arabera.



LEHEN KAPITULUA – LANGILEEN GASTUAK - 10.366.787,50 euro

%1,38ko igoera du, 2014ko aurrekontuaren kopuruaren aldean.

Kapitulu honetan sailez sail banakako kalkuluak honela egin ditugu, plantilan hutsik dauden lanpostu jakin batzuk hornitzea kontuan izanik, langileek erretiroa hartu dutelako eta abian jarritako polizia kaboen koordinatzailearen eta diru-bilketako teknikariaren prozesuengatik, eta, horiek izan ezik, ez dago jasota langile berririk sartzeari plantilan. Beraz, kapitulua kalkulatzeko, oinarria hartu dugu oraingo plantila eta 2014an indarrean egon diren ordainketak, 2015erako Estatuko aurrekontu orokorren proiektuan jasotako terminoen arabera.

Kapituluaren igoera (+140,4 mila euro) oinarritzen da, batez ere, enplegua sustatzeko programak egiteko aurreikusitako dauden langileen kontratazioetan; guztira 442.115,42 € (+86 mila euro gehiago 2014ko aurrekontuan baino), nagusiki Udalak finantzaturik, eta horietan 138 mila euroko koltxoi bat dugu kontratazio berriak egiteko. Gehitzeko dagoen beste arazoia dator Gizarte Segurantzari enpresa kotizazioak ematek, hainbat kontzeptutan (espezieko ordainketak, kilometrajeak, bizi aseguruak, eta abar) 2014an hasitako kotizazio derrigortasunaren ondorioz.

BIGARREN KAPITULUA - ONDASUN ETA ZERBITZU ARRUNTAK EROSTEA - 9.972.960,91 euro

Jaisten da %5,28, 2014ko aurrekontuaren aldean. Horrek esan gura du 2015eko ekitaldian gutxi gorabehera 555,4 mila euroan murrizten dela 2014an hasieran onartutako aurrekontu kopuruaren batura. Gehien bat, gutxitze hori bi kontzeptutik dator:

- 2014ko aurrekontuko kontu-saila, onartu zenean, haren destinoa zehaztu barik zegoela, funtsa izaeraz sortu zen, enplegua sortzeko jardueretarako; orduan 350.000 euroko kopurua zen eta lan lerroak zehaztu eta gero (langileen zuzeneko kontratazioak enplegua sustatzeko programetan, enplegu azokaren finantzaketa, Arrasateko langabeak kontratatzen dituzten enpresentzako laguntza programak eta Arrasateko tituludun berrientzako bekak emateko, enprekin hitzarmenak kudeatzeko programa), dagozkion kapituluetan sartu dira, lehen kapitulua - langileen gastuak, bigarren kapitulua – enplegu azokako jarduerak eta laugarren kapitulua – laguntza edo diru-laguntza programak. Hau da, bigarren kapituluak 350.000 euro zuen 2014an eta aurten 25.000 euro izango du.

- Zerga ikuskapenari buruz azpikontratutako aholkularitza zerbitzuaren kostua finantzatzeko den kontu-saila 190.000 euroan murriztu dugu, aplikatzekoak diren tarifen beheranzko berrazterketa egitearen ondorioz (kontratua berritzeko testuinguruan baldintzak berriro negoziatzea), agertutako eta kobratutako zerga zorraren %50 eta %30 (gehi BEZ) izatetik, etorkizuneko erroldetan garrantzia izan edo ez, hurrenez hurren, %35 eta %20ko tarifeetara (gehi BEZ) pasatuz.

Kapitulu honetako aurrekontu aurreikuspenak kalkulatzeko, irizpide hauek erabili ditugu:



- **Oraingo zerbitzu eskaintzarekin jarraitzea**, aldaketa handirik gabe, nahiz eta, kostuen datu eguneratuen arabera, kasu batzuetan desbideraketa esanguratsuak dituzten. Aipatu ditzakegu, besteak beste, kontu-sail hauek:

- Positiboak – Parke eta lorategietako mantentze zerbitzua, -44,6 mila euro, kontratu berria adjudikatu eta gero, kale garbiketako zerbitzua, -16 mila euro, aurrekontuan aurreikusitakoak baino prezio azterketa gutxiago egiteagatik, Garabi zerbitzua, -15 mila euro, zerbitzua zuzenean emateagatik, TAO kontratua, -17,5 mila euro, kontratatutako zerbitzuaren benetako kostuetan oinarrituta, eta azpikontratutako babesgabetasun egoeretarako aholkularitza eta terapien zerbitzua, -30 mila euro, zerbitzuen benetako eritmoari edo eskariari egokitzeagatik.

- Negatiboak – Gizarte ongizateko bulego berriaren gastuak, +25 mila euro, 2014ko 4. hiruhilekoan inauguratua, etxeko laguntza zerbitzua, +20 mila euro, izandako eskari gehikuntzagatik, bai eta Gazteria bulegoan konponketa arruntak izateagatik ere, +12 mila euro, eta Udalako Ingurumen Eskola, +12 mila euro.

- **Kontu-sail jakin batzuk kentzea edo haien diru-kopurua nabarmen murriztea**, adibidez udalaren argitalpenetarako kontu-saila, -30 mila euro, plan orokorra zabalkunderako zen kontu-saila (2014an egindakoa), -30 mila euro, lurpeko edukiontziak konpontzeko den kontu-saila, -38,2 mila euro, 2014 eta 2015 artean egin behar baita, etxeko olio biltzeko zerbitzua, -10,2 mila euro, zerbitzua mankomunitatearen bidez emango baita, eta azokaren parte-hartze prozesuaren inguruan aholkuak emateko kontu-saila, -21,8 mila euro.

- **Kontu-sail berriak sortzea**, lehen AUKEAko aurrekontuan agertzen zen kirol zerbitzuaren ondasun eta zerbitzu arruntetan erosketak finantzatzeko direnak, **guztira 829,5 mila euroko zenbatekoa**.

- **Kontu-sail berriak**, adibidez konpostaje organikoko zerbitzua emateko direnak, eta ingurumen sailetik bultzatutako jarduerak, +12 mila euro, bizikleten mugikortasuna eta lehen sektorearen sentsibilizazioa.

- **Gehikuntzarik ez borondatezko gastuetan**, batez ere batzordeen jardueretako kontu-sailai eragiten diena, jai gastuak eta kirol jarduera edo ikastaroetako gastuak barne harturik, eta guztira da 1.047,5 mila euroko zenbatekoa eta osotara iazkoaren antzeko kopurua da (%1eko igoera gutxi gorabehera).

- Dena den, memoriaren hasieran adierazi bezala, Gizarte Ongizateko sailaren programetan, hala nola, **etxeko laguntza zerbitzu azpikontratatuan eta babesik gabeko egoerei buruzko aholkularitza zerbitzuan**, besteak beste, 2015eko aurrekontuaren diru-kopurua kalkulatu dugu zerbitzuaren oraingo errealitateetik eta eskaritik abiatuta, baina horrek ez du esan nahi herritarrek planteatu ditzaketan eskariei ez diela erantzungo. Hau da, aurrekontuko aurreikuspenak baino eskari gehiago izanez gero, eragindako kontu-sailak handitu egingo lirateke, kredituak aldatzeko dagokion espedientearen bidez.



HIRUGARREN KAPITULUA - MAILEGUEN INTERESAK - 38.288,69 euro

2014ko aurrekontuaren aldean, %40,6ko jaitsiera du.


Udal gastuaren banaketan kapitulu honen garrantzia etengabe murriztearen arrazoia da bikoitza:

- 2011-2014 aldian **interes tipoa egonkortu izana historikoki baxuak diren neurrietan**, izan ere, 2011ko bukaera aldera %1,4 zen hiruhileko euriborraren interes tasa eta orain azaro bukaeran %0,08 da. Egia esan, 2014an, interes tipoen erreferentzia horrek ia ez du gainditu %0,34 (2014ko apirilean) eta **2014ko** irailaz geroztik mugitzen ari da, ia aldaketarik gabe, **%0,08 inguruan**, hau da, banku arteko diru bat (bankuek lortu ahal dutena) ia dohainik. Oraingo arazoa honetan datza, mailegu berriak lortzeko bankuek diru horri aplikatzen dioten diferentzian edo marjina.

- Maileguengatiko **zorraren** zenbatekoa **murriztea**, zorpetze berririk gabe maileguen **urteko amortizazioen** ondorioz.

2015eko aurrekontu aurreikuspenak kalkulatzeko, erreferentzia zuhur samarra erabili dugu, zehazki %0,40ko interes tipo bat, eta horri gero kontratu bakoitzari aplikatu dakioken diferentziala gehitu behar diogu. Mailegu ia gehienak interes tipo aldakorrean sinaturik daude (KUTXAren mailegu bat izan ezik, %4,07ko tipoaz kontrataturik dagoena, aurrez amortizatu izan dena eta behin betiko 2015eko martxoan likidatuko dena), hiruhileko euribor erreferentziaz. Kontuan hartzen badugu azken erreferentzia ezaguna, 2014/12/2an, %0,08koa dela, aurrekontu aurreikuspenak %0,32 inguruko koltxoia du interes tipoa.

Honekin batera doan grafikoan ikusi dezakegu hiruhileko EURIBOR erreferentziak izandako eboluzioa (2000. urtera arte erreferentzia da MIBOR) 1991-2014ko azaroaren aldian, eta hor egiaztatuko dugu maila baxuetan egonkortu dela 2009tik aurrera, are gehiago azken 3 urteetan.



(*) 1991-2014 aldiko datuak hiruhileko MIBOR erreferentziari dagozkie.

Bestalde, poliki poliki, ematen du 2014an hobetu egin direla zertxobait bankuek eta kutxek mailegu berriak sinatzeko eskaintako finantza baldintzak. Adibidez, 2013an Euriborrarekiko 4 portzentaje puntuko diferentzialak eskaintzetik (horrek 2014an mailegu horientatik ordaindu beharreko interes tipoa jartzen zuen %4,1 inguruan), Gipuzkoako udaleko hitzartutako azken operazioen arabera, %1eko diferentzial bat eskaintzera pasatu dute. Azkenego mailegu kontratuekin interes tipoa egongo litzateke azkenean (oraingo Euribor erreferentziaz) %1,1 inguruan, onargarriagoa eta arrazoizkoagoa izango litzatekeen prezioa, hain zuzen ere.

Hau da, ematen du zorpetzea izateko muga nagusietako bat desagertzen hasi dela, hain zuzen, prezioari buruzkoa. Beste muga da, oraindik indarrean jarraitzen duena, lege esparruari buruzkoa, irizpideak eta indarrean dauden legeak oso zorrotzak direlarik, aurrekontu egonkortasunaren printzipioak betetzeari dagokionez eta, aurrekontu ekitaldi batean bete ezean, ekonomia-finantza plan bat onartzeko derrigortasuna, urtebeteko epean egonkortasun agertoki batera itzultzea bermatzeko. Muga horrek tamaina bateko inbertsioen plan bat exekutatzeko baldintzatzen du, finantza bide moduan zorpetzean era esanguratsuan sostengatuko dena. Araudi legal horiek alde batera uzten dute Arrasateko Udalaren finantza osasuna on samarra dela eta 1990-2015 aldiko zorpetze baxueneko kopurua dugula. Egia esan, ez da oso ulergarria legezko “kafesne” hau berdin denontzat, baina horixe daukagu eta koiuntura honetan kudeatu behar du Udalak bere zorpetzearen erabilera.



LAUGARREN KAPITULUA – TRANSFERENTZIA ARRUNTAK - 4.882.412,98 euro.

Termino finkatuetan alderatzen badugu, hau da, Aukea eta Udalaren aurrekontuen 2014ko kopuruak batuta, Aukea-ren defizitaren intzidentzia kenduta (orain pertsonal gastuen, ondasun eta zerbitzuen eta transferentzia arrunten kapituluaren kontu-sailetan datorrena jasota), esan genezake aurrekontuaren diru-kopurua %2,86 gutxitzen dela.

Kapitulu honen alderdi aipagarri moduan hauek aipatu ditzakegu:

- **Udalen arteko zerbitzu amankomunatuaren kuotak, 2.445.867,92 euro direnak, %5,8 gutxitu dira, hasieran onartutako 2014ko aurrekontuko diru-kopuruaren aldean.** Jeitsiera horren arrazoi nagusiak datoz RSU zerbitzutik, oraingo legezko sailkapenean kuota bereziaz banatuta, bilketa, kudeaketa eta tratamendua, ia 130 mila euroan gutxitzen direnak (%-6,1), sinatutako kontratu berrietan ezarritako neurrien eragin ekonomikoen ondorioz eta, baita ere, gaikako bilketa egoki batetik lortutako diru-sarrerak gehitzen direlako.

- **Iturbide Egoitza erakunde autonomoan aurreikusitako defizitaren jaitsiera nabarmena** (-104 mila euro, ▼51,8%), batez ere foru finantzaketako maila hobetu edo gastuak estaltzearen ondorioa; horiek agertzen dira egoiliar plaza bakoitzeko hitzartutako prezioan nahiz defizita arintzeko ekarpen berezien bidez, Gipuzkoako egoitza guztiak kudeatzeko “KABIA” izenarekin sortu berri den foru erakundearen sartu bitartean.

- **AUKEAren kontuak Udalaren beraren aurrekontuan sartzearen eragina.** Komeni da gogoan hartzea erakunde autonomoa desegin izan ez balitz 2014 urtearen bukaera aldera, estatu juridiko harekin jarduten jarraitu izan balu, bere kontuetan 887,3 mila euroko defizita izango zuen, hau da, 2014aren antzeko kopuru bat ia. Horrek esan nahi du, alhora utzita AUKEAk 2014ra arte zituen kopurua eta, aurrerantzean, kirolari buruz Udalak jarriko dituen laguntza edo diru-laguntzen kopuruak, kirol atalean lortutako **tasen eta egindako jardueren diru-sarreraren bidez zuzeneko gastu arruntei buruzko estaldura maila** (ez dira sartzen hor ez egitura kargak, ez amortizazioak, ez inbertsioak, eta abar) **%50etik behera geratzen da**, zehazki %48,9an. Ikusita zer-nolako kopuru handiak diren, gogoeta egin beharko genuke dauden bideak bilatzeko erronkari buruz, oraingo ekonomia-finantza ratioak hobetze aldera, emandako zerbitzuen kalitateari nabarmen eragin gabe.

- **Gizarte Larrialdietako Laguntzak finantzatzeko diren baliabideak gutxitzea (-100 mila euro).** Memoriaren hasieran adierazi bezala, 2015erako aurreikuspenak oinarria du 2014ko datu errealetik abiatutako eskariaren estimazio batean, baina, gainera, presente izan behar dugu aurrekontuko dotazioa ez dela izango laguntza ez jasotzeko arrazoia, izan ere, borondate politikoa dago aplikatzeko den legezko esparruan erregulatutako laguntza kasuen artean dauden eskari guztiei erantzuteko, orain arte bezalaxe. Azken batean, udaleko gobernu taldearen borondate politikoa da argia eta, onartutako esleipena ez bada nahikoa eskariei erantzuteko, funts gehigarriak jarriko dira.

- Memoriaren hasieran aipatu ditugu 2014ko urtean zehar zehaztu direla **enpleguari buruzko laguntza programak**, hasiera batean 2014ko aurrekontuan agertzen ez zirenak, eta 2015ean honelako **laguntza programa** daude, **langabeak kontratatuzko laguntzak, tituludun**



berrien bekak ordaintzeko eta lanpostu egonkorak sortzeko laguntzak, guztira 185.000 euroko dotazioarekin.

- **Arrasate Musikalenzako kopurua nabarmen igotzea, 265 mila eurotik 290 mila eurora pasatuko baita**, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza ekarpena txikiagoa izango delako, 187 mila euro, apurka-apurka bere garaian agindu zuen finantzaketa eredu teorikotik urruntzen ari dena, hau da, musika eskolaren gastuak hiru aldeek berdina ordaintzearena, ikasleen kuoten bidez, Eusko Jaurlaritzaren bidez eta Udalaren bidez.

- Orokortasunez, salbuespenak salbuespen (laguntza lerro berri bat sortu dugu, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenak sustatu eta modernizatzeko, eta JM Arizmendiarritari buruzko dokumental bat ekoizteko izendun diru-laguntza bat), **eutsi egiten diegu diru-laguntza programei**, bai eta **2014an indarrean zeuden** izendun diru-laguntzei ere, iazko dotazioen antzeko dotazio batzuekin. Kasu guztietan, diru-laguntza programak finantzatzeko **aurrekontuan jarritako baliabideak dira 1,6 milioi euro**, kirol eremukoak barne hartuta.

- Halaber, **udaleko talde politikoei ordaindu beharreko diru-kopuruak eta kontzeptuak mantendu egin ditugu** (taldekoak, zinegotzi kopuruaren araberrakoak eta bileretara etortzearen araberrakoak), 2015erako aldaketarik izan gabe.

SEIGARREN KAPITULUA – INBERTSIO ERREALAK - 4.283.805,63 euro.

%2,05 jaisten da (89,5 mila euro gutxiago), 2014ko aurrekontuan kapitulu honi esleitutako kopuruari buruz.

Aurreko aurrekontuetan adierazitakoa errepikatuko dugu, inbertsio proiektuak dira azken urteotan izandako aurrekontu murrizketen kaltetu nagusiak. Aurrekontu-doikuntzaren arazoari erantzuteko mekanismo gisa, 2014an formula bati ekin diogu, tamaina bateko inbertsioak exekutatu ahal izateko, horien finantzaketa zenbait ekitalditan banatze aldera, betiere etapaz etapako exekuzio horrek ez badakar kostu handiagorik ezta eragozpen berezirik ere edo nahi ez dugun ondoriorik. Azken batean, egin beharreko proiektuen periodifikatze eta plangintza egokia egitea da kontua, urte antzeko konpromisoak onartuz, horien exekuzioa samurtzeko. Hala, 2014an ekin diogu, eta 2015ean segituko dugu, hainbat proiektu egiteari, hala nola, Udala auzoko urbanizazioaren 2. eta 3. faseak, Zarugalde kaleko mendi-hegalei eusteko proiektua, Goiru-Takolo urbanizazioa, azoka birmoldatzeko inbertsioak (irisgarritasuna-igogailua, proiektu arkitektonikoa idaztea eta haren exekuzioa hastea), alde zaharrea termitek aurkako jarduera plana, San Josepe berriro urbanizatzea, Zalduspe-Osinagako zubiko konponketak. Era berean, 2015ean udal euskaltegirako lokal berrien proiektuari ekingo diogu, eta hurrengo ekitaldietan dotazio osagarriak behar izango ditugu, bai eta lehengo Zerrajerako erlojuaren eraikina birmoldatzeko proiektua idaztea ere, eraikinaren birgaitze integrala egin aurretik.

Halaber, aurreko urteetan bezala, proposatzen dugu aurrekontuan zabalik uztea, aurrekontuak betetzeko arauen bidez, sinatu beharreko kredituen edo maileguren zenbatekoa milioi bat euroan handitzeko aukera, azkartasunez erantzuteko inbertsio proiektuetan Udalari egokitu dakizkikeen konpromisoei, betiere diru-laguntza portzentajea bada inbertsioaren kostu osoaren %40koa edo handiagoa.



Azkenik, xehetasun handiago batez, 2015ean hasi behar ditugun jarduera nagusietako batzuk deskribatuko ditugu, zehazki hauek:

- **Udala auzoko urbanizazioa, 410.000 euro.** Urte anitzeko izaera duen kontu-saila, 2013, 2014 eta 2015eko ekitaldietan finantzatzekoa, hurrenez hurren, 175.000 €, 75.000 € eta 410.000 €ko aurrekontu izendapenekin. Udala auzoko Plan Bereziko obren 2. eta 3. faseari ekin nahi diogu; horren exekuzioa lankidetzan egiten ari gara, auzoko bizilagunen diru-ekarpenez eta ordainez (batzuk dagoeneko eginda daude eta beste batzuk egiteko, araudian emandako hirigintza aprobetxamendua gauzatzearen arabera) partzialki finantzatuta. Obren gutxi gorabeherako aurrekontua da 700 mila euro, eta kontratazio prozeduraren bidez kostua nabarmen murriztea lortu genezake.

- **TAKOLO-GOIRU zeharbidea – 770.000 euro.** 2015eko aurrekontuko kontu-sailak 2014an esleitutako dotazioa osatzen du, 958.204,49 euroko zenbatekoaz. 2014an hitzarmena sinatu dugu Foru Aldundiarekin, GI-2620 errepidearen mantentze eta antolatze lanaren eskumena pasatzea erabakitzeko, Udalaren alde, izan ere, bidezati hori zeharbidea edo kalea izatera pasatu da eta, hortaz, udalaren eskumena izango da. Eskualdaketa horrekin batera, 958.204,49 euroko kopurua eman eta ordaindu diote Udalari, proiektuari lotutako laguntzaren izaeraz, mantentze egoera egokia izateko behar dituen lanak egiteko. Udalak, bestalde, beharrezko asfaltatze lanaz gain (zorua oso egoera txarrean baitago), jarduerak egin nahi ditu Asmatu SLP enpresak idatzitako “Arrasaten Takolo eta Goiru artean, GI-2620 errepideko lehengo zeharbidea berriro urbanizatzeko proiektua” proiektuaren arabera, Udalbatzarrak onartu berri du 2014ko irailaren 16an, eta aurrekontua du 5.817.078,59 euro eta hura exekutatzeko 9 fase desberdin aurreikusten ditu.

Gauzatzeko aukeratutako lehen fasea da “F” izenekoak; Arrasate pasealekuko bi biribilguneen artean dagoen bidezatian (Foruen plaza eta Udala plazaren mugan) jardungo du, eta aurrekontua du 1.303.688,42 euro eta 6 hilabete daude aurreikusita lanak exekutatzeko. Hortaz, fase hori 2014ko eta 2015eko aurrekontuez finantzatuko litzateke.

- **ETXALUZE-MUSAKOLA BIDEGORRIA egokitzea, 80.000 euro.** Proiektua idatzi duen enpresak, Bidein SL, alternatibei buruz planteatutako azterketatik abiatuta, herritarren parte-hartze prozesua egin eta gero (Kulturaren erakustaldia, inkestak, iradokizunak, eta abar), “Bizikleta mahaia” izenekoan horiek aztertu ondoren eta adostasun maila handiarekin, Tokiko Gobernu Batzarrak 2014ko azaroaren 17an hartutako akordioaren bidez egindako azterketatik datozen irizpideen eta zehaztapenen berri eman dio proiektua idatzi duen enpresari.

Irizpide horietatik abiatuta, dagokion aurreproiektua egin beharko da, eta trazatua jaso beharko du, geroago dagokion exekuzio proiektua egiteko, fase bakar batean egin nahi duguna, 2015eko eta 2016ko aurrekontuen kontura.

- **San Josepe berriro urbanizatzea, LKS Ingenieria S.Coop.ak idatzi eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2012ko maiatzaren 14an onartutako proiektuaren arabera, 2.515.000 €ko aurrekontu batekin.** Proiektuaren helburu nagusia da auzoko ibilgailuen trafikoa, oinezkoen trafikoa eta gune libreak hobetzea, hango biztanleen bizi kalitatea handitzeko. Era berean, auzoko zerbitzu sarea hobetzen dira. Batetik, ur hornidurako sarea berrituko dugu eta ur ahoak ere bai, indarrean dagoen araudia betetzeko. Euri-uren saneamendu sarea berrituko dugu. Bestalde, lurpean sartuko ditugu bai linea elektrikoak bai telefono lineak, gaur egun airetik



doazenak eta fatxadan daudenak, eta argiteria sarea berrituko dugu. Azkenik, Udalaren komunikazio sarea zehaztu dugu.

1A fasea doa: San Josepe kalea adarkatzen den ingurutik (1 Fasearen abiapuntua, lehengo harrobiaren parean) 2 kaleak lotzen dituzten eskaileren eremuraino, tarteko parkea hasten den lekuan bertan.

Horren tamaina ekonomikoa ikusirik, fase edo zatika exekutatu beharra dago nahitaez. 2014an hasitako kontratazio espedienteak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2014ko urriaren 13an onartu zuena, proiektu horren 1A fasea du jasota, 431.188,91 €ko aurrekontu zenbateko batekin, 2014ko eta 2015eko ekitaldietako aurrekontuez batera finantzatzekoa. Fase horretan aurreikusitako jarduerak dira pitzadurak konpontzeko hainbat obra egitea eta segurtasuna hobetzeko obrak egitea, inguruaren sarreran edo sarbidean.

- **Zarugaldeko mendi-hegalei eustea, 110.000 euro.** Tokiko Gobernu Batzarraren akordioz, 2013/4/15ean, A-GATEIN Ingeniería SLP enpresari adjudikaturik Zarugalde kaleko 44 eta 46 atarteetako atzealdean ezponda egonkortzeko proiektua idaztea, hainbat arazo tarteko atzeratu egin da proiektu hori egitea. Hura exekutatzeari ekin baino lehen, hainbat gestio egin behar izan dira lursailen erabilgarritasuna lortzeko. Horregatik, urte anitzeko proiektu baten gisa hartu dugu, 2014-2015ean egitekoa, nahiz eta horren urgentzia edo presa ikusirik, segurtasun beharrei erantzuten baitie, saiatuko gara osorik bukatzen lehenbailehen.

Proiektuaren obrak gauzatzeko esleipena TGB-k onartu du 2014/11/10eko dataz, Geotécnia y Tecnología S.L. enpresaren alde, 333.923,26 euroko kopuruaz.

- **Argiteria publikoko inbertsioak,** 175.000 euroko diru-kopuru batekin. Energia efizientzia hobetzeko programetan Foru Aldundiaren 60.000 euroko diru-laguntza batekin, urbanizazio proiektu espezifikoean aurreikusitako jardueraz gain (gutxi gorabehera 1.000 luminariari eragingo lioketelarik), Arrasateko gainerako luminaria parkea ordeztzea jasotzen da (3.000 inguru), 8-10 urtean. Helburua izango litzateke berritze horretan teknologia berriak sartzea, energia efizientzia handiagoa lortze aldera (LED teknologia).

- **Azokako inbertsioa, 200.000 euroko diru-kopuru batekin.** Azoka plazan, instalazioetako irisgarritasuna hobetzeko, igogailu proiektuari buruzko jarduera buruturik 2014ko aurrekontuaren kontura, 2015ean Udal Azoka birgaitzeko proiektua idaztea jasotzen da, oinarri hartuta parte-hartze prozesuaren testuinguruan egindako proiektu gidan agertutakoa. Espero dugu urte bukaerarako proiektu horren obrak adjudikatu eta hastea; estimatzen dugu eragin ekonomiko nabarmena izango duela 2016ko eta 2017ko aurrekontuetako kontuetan.

- **Hezkuntzako inbertsioak,** 185.000 euroko diru-kopuru batekin, ikastetxeetan esku hartzeko lanak finantzatzeko, nagusiki, Erguin Eskolako atzealdea urbanizatzea, 170.000 €ko zenbatekoaz, eta Bedoñabeko haur eskolan gelak birmoldatzeko obrak eta lurrak mugitzeko obrak ere bai, 15.000 €ko aurrekontu batekin. Estimatu dugu obra horiek Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza bat izango dutela, %55 inguruko portzentaje batekin, eta hori 102.000 euro izango da.

- **Euskaltegiko lokal berriak,** 100.000 euroko diru-kopuru batekin, lokal berri batzuk egokitzea da asmoa, izan ere, baliabide falta dago eta gelak gainezka (hotsgabetea, isolamendua, guneak, eta abar) oraingo lokal bietan (Loramendi kalea eta Arimazubi plaza). 2015 eta 2016



artean egin beharreko jarduera da eta, nahiz eta guztiz erabaki barik egon kokaleku berria, buruan duguna da Zerrajerako lokalen aukera, aurki Visesak Udalaren esku jarriko dituen (bere garaian Eusko Jaurlaritzaren eta Arrasateko Udalaren artean egindako hitzarmenean sinatutako konpromisoak betetzeko).

ZAZPIGARREN KAPITULUA – KAPITAL TRANSFERENTZIAK - 783.861,20 euro

%4,40ko jaitsiera du, 2014ko aurrekontuaren aldean.

Ia aldaketarik izan gabe 2014ko aurrekontuaren kontu-sailei eta zenbatekoei buruz, iaz zeuden kontu-sailak eta kontzeptuak mantendu ditugu (igogailuak jartzeko diru-laguntzak/irisgarritasuna hobetzea, Zubillaga Hiltegia SLko inbertsioak egiteko ekarpena, erabilera publikoko zortasuna duten urbanizazio pribatuen hobekuntzak kofinantzatzeko diru-laguntzak, Mankomunitatearen eta Gipuzkoako Ur Partzuergoaren inbertsioak finantzatzeko ekarpenez gain).

Kapitulu honen barruan, eragin ekonomiko berezia dutelako, kontu-sail hauek azpimarratu behar ditugu:

- Mankomunitatearen inbertsioak finantzatzeko den kontu-saila, 230.673,70 euroko diru-izendapen batekin. Zenbatekoa %15,3 gutxitzen da, iazkoaren aldean, eta haren beharra dator, nagusiki (%94,6) hondakinak bildu eta kudeatzeko zerbitzuekin lotuta dauden inbertsioetatik.
- Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, SAK egin behar dituen inbertsioak finantzatzeko den udalaren ekarpena, 468.559,00 euroko zenbatekoa, 2014ko urtean aldean %4ko igoera bat dena. Puntu horretan, aurreko aurrekontuetan adierazitakoa errepikatuko dugu, eztabaida serio bat behar izateari buruz, administrazio gehienek aurrekontu zailtasunen oraingo testuinguruan, benetako finantza gaitasunei inbertsio erritmoa egokitzeari begira. Azterketa hori, nahitaez, udaletan egin behar izan dugu, baina ez dago hain garbi udalez gaindiko entitatean egin dutenik, izan ere, haien zuzendaritza organoen osarak berak, bai eta erabakiak hartzeko mekanismoek ere, eztabaida horren kontrola zaildu egiten dute. Azken batean, baliabide erabilgarri mugatuaren aurrean, lehenetsunez buruzko eztabaida benetan egitearen falta sumatzen dugu, eta susmoa dugu udal ekarpenek, behintzat, itxura batean, karga "mugiezina"ren izaera dutela.

ZORTZIGARREN KAPITULUA - FINANTZA AKTIBOEN ALDAKETA – 265.001 euro

2014ko aurrekontuan zegoen kopuru eta kontzeptu berdintsua.

Garrantzi ekonomiko urria du, eta normalean langileen aurrerakinak finantzatzeko diren aurrekontu kredituak jasotzen ditu; era berean, horiek beste kontu-saila bat dute diru-sarreretan. Hala ere, 2011tik aurrera sartu behar da Garaia, S.Coop.ren kapitalarendako ekarpenari dagokion zatia, zenbateko osoa dena 756.400 euro (159.950,74 euro 2010eko aurrekontuaren kontura eta gainerakoa 2011-2015 aldiko aurrekontuen kontura, urteko ekarpena 119.289,85 euro), 2010/10/7an osoko bilkuran hartutako akordioaren bidez hartutako urte anitzeko konpromisoaren terminoen arabera, hau da, Garaia Poligonoan egiten dituzten proiektu



berrietatik datozen eraikuntza, instalazio eta obren gaineko Zerga dela-eta baliabideak lortzen badira.

Halaber, osoko bilkuran oraindik berretsi gabe, baina Ogasun Batzordearen aldeko diktamena duelarik, aurki onartu/erregularizatuko da bere garaian Garaia Berrikuntza guneak erabakitako kapital gehitzea, 2010/4/15ean erabaki zuena; eta Arrasateko Udalarentzat hori 331.527 € da. Gehitze hori, gehitzeari berari ez zegozkion beste gai batzuegatik, oso bilkuran “onartu” barik geratu zen, hau da, Udalak ez zuen onartu eta ez zuen baztertu, eta begien bistakoa zen hura erregularizatu beharra, are gehiago akordio hori loteslea baitzen.

Era berean, 2013az geroztik hainbat aldaketa izan dugu, zerga izaerakoak, Garaia S.Coop.ari eragiten diotenak, eta eragina dute egin beharreko diru ekarpenaren mekanismoan. Batetik, Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioz erakunde horrek izan duen salbuespena kendu izana, udal zerga berriak sortzea ekarri duelarik 2014an, 169.824,71 €ko zenbatekoa, Udalak ordaintzeko dituen kapitalerako ekarpenen bidez konpentsatuko direnak. Horregatik, hiri OHZren bidez ekarpen/kompentsazioaren estimazioa da 2014an 175.000 eurokoa. Bestalde, azken 2 urteotan nekez sortu da diru-sarrerarik eraikuntzen gaineko zergan, Garaia eremuari dagokionez, eta zentzuzkoa da aurrekontuan jasotzea bai diru-sarrerak bai zerga horren ondorioz datozen ekarpenak, euro bateko diru-izendapenarekin, handitu egin daitekeena.

Azkenik, iaz bezalaxe, 1 €ko kontu-saila utzi dugu, handitu egin daitekeena, bai gastuetan bai diru-sarreretan, 2015eko ekaineko eta abenduko ordainsari berezian aurrerakinetarako, hurrenez hurren, urtarrilera eta ekainera aurreratuko direnak. Edozelan ere, litekeena da 2012an kendutako ordainsari bereziaren zati bat edo osoa (erabakitako aurrerakin sistema sortzen duena), 2015erako Estatuko aurrekontu proiektuan erregulatukoan oinarriturik, edota, udalen erakunde ordezkariak eta gizarte agenteek horri buruz hitzartu edo proposatu dezaketenen arabera, laster batean ordaindu dezaketen kopurua; hori hala izanez gero, ez genuke behar aurrerakin mekanismo hori.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA – FINANTZA PASIBOEN ALDAKETA - 962.160,89 euro

%8,87 jaitsi da, 2014ko aurrekontuko kopuruei buruz.

Kapitulu honetako finantza kargak kalkulatzeko, udalak estimatu du 2015eko aurrekontuetan aurreikusitako maileguak (edo azkenean kontratatzen dena) ez duela behar izango ordainketarik hurrengo ekitaldian, uste baitu ez duela erabiliko ezelako kopururik. Estimazio hori egiteko arrazoia da 2015ean sinatu beharreko mailegu berrien aurrekontu aurreikuspenaren izaera “teorikoa”, ekitaldiko gastuen eta diru-sarreraren koadratze formala egiteko hondar baliabide moduan erabilia, benetan espero dugunean lortzea nahiko baliabide 2014ko itxieratik, zorpetze hori beharrezko ez egiteko. Kasu guztietan, ez dugu espero 2015en diruzaintza tentsiorik egotea, ez eta mailegu berriak kontratatzea eta erabiltzea beharrezko egiten duen finantza desfaserik ere.

2014ko aurrekontuaren exekuzioak, zorpetzearen ikuspegitik, erakutsi digu ez dugula behar izan mailegu berririk (nahiz eta “teorian” aurreikusita egon kreditu berri bat, 1,22 milioi eurokoa) eta, bestalde, banketxeekin kontratatutako kredituegatik dugun zorraren zenbatekoa gutxitu egin da 1,06 milioi, gutxi gorabehera, amortizazioen eraginez.



Hortaz, 2015eko gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspenak ontzat emanda (hau da, diru-sarreretan, mailegu berririk ez kontratatzea eta, gastuetan, ekitaldiko amortizazioak betetzea), koadro honen bidez oraingo Udalbatzaren legealdian izandako zorpetzearen eboluzioa ikusi dezakegu:

FINANTZA ZORRAREN EBOLUZIOA 2011-2015

KONTZEPTUA	SALDOA 2011/1/1	AMORTIZAZIOA 2011-2015	MAILEGU BERRIAK	AZKEN SALDOA 2014/12/31
Banketxeekin dugun zorra	5.073.932,03€	5.846.606,50€	3.104.928,42€	2.332.253,95€
2009 UFFF zorra	3.077.493,19€-	3.077.493,19€	-	0€
ZORRA GUZTIRA	8.151.425,22€	8.924.099,69€	3.104.928,42€	2.332.253,95€

Koadroan ikusi dezakegu 2015eko bukaeran, aurrekontuaren mailegu berria eskatu ezean, gutxitu egingo dela zorraren zenbatekoa ($\nabla\%71,4$) 2011ko hasierako zorraren saldoi buruz. Arazoa dago egoera hobe horrek, zorpetzeari buruz, ez duela balio oraingo egoeran kreditu berriak eskatzeko urte anitzeko inbertsioen bidez finantzatzeko, izan ere, ez lege esparruak ez eskaintako baldintzek ez dute halako aukerarik ematen (nahiz eta ikusi, zorionez, azken boladan eskaintako prezioak parametro logikoetara iristen ari direla).

Aurreko aurrekontuetan bezala, memorian aztertu behar dugu 1991-2015 aldiari maileguengatik zorraren eboluzioa, eta 2015eko aurrekontuaren erreferentziak edo estimazioak erabiliko ditugu (lehenago aipatu ditugun lan hipotesien arabera, hau da, mailegurik ez 2015ean). Halaber, zor hori lotuko dugu aurrekontuetako likidazioetatik lortutako diru-sarrera arruntekin (2014koak izango lirateke, adierazi bezala, itxiera aurrerapenaren datuen arabera eta 2015ekoak izango lirateke aurrekontu aurreikuspenen arabera), erreferentzia hori ulerturik Udalaren gaitasun ekonomikoaren neurri gisa.

MAILEGUEN ZORRAREN EBOLUZIOA – 1991/2015 ALDIAN (MILA EUROTAN)

URTEA	HASIERAKO ZOR BIZIA	MAILEGU BERRIAK	AMORTIZ. EKITALDIA	BUKAERAKO ZORRA	AURREKO URT.Z
1991	4.398,2	1.388,9	218,2	5.569	26,6%
1992	5.569	2.013,4	295,7	7.286,7	30,8%
1993	7.286,7	4.771,4	2.372,2	9.685,3	32,9%
1994	9.685,3	2.434	378	11.741,4	21,2%
1995	11.741,4	1.911,2	605,8	13.052,2	11,2%
1996	13.052,2	2.704,6	3.755,1	12.001,6	- 8,0%



1997	12.001,6	---	976	11.025,6	- 8,1%
1998	11.025,6	---	1.033,1	9.992,4	- 9,4%
1999	9.992,4	1.434	1.140,1	8.852,3	- 11,4%
2000	8.852,3	-	1.123,9	7.728,4	- 12,7%
2001	7.728,4	1.803	1.156,3	8.375,1	+8,4%
2002	8.375,1	1.800	1.240,1	8.935,3	+ 6,7%
2003	8.935,3	---	1.429,2	7.506,1	- 16%
2004	7.506,1	---	1.682,5	5.823,6	- 22,4%
2005	5.821,6	5.904,9	1.723,8	10.004,7	+ 71,8%
2006	10.004,7	1,200	1.328	9.874,7	- 1,3 %
2007	9.874,7	---	1.227,2	8.647,5	- 12,5%
2008	8.647,5	---	1.060,2	7.587,2	- 12,3 %
2009 (1)	7.587,2	3.077,5	1.081,9	9.582,8	+26,3%
2010	9.582,8	-	1.403,5	8.179,3	-14,6%
2011	8.179,3	3.111,2 (2)	2.146,0	9.144,5	11,4%
2012	9.144,5	---	2.438,2	6.706,3	-27 %
2013	6.706,3	--	2.312,6	4.393,7	-34,5%
2014 (3)	4.393,7		1.065	3.328,7	-24,2%
2015 (4)	3.328,7	--	962,2	2.366,5	-28,9%

(1) - Mailegu berritzat jotzen dugu Foru Aldundiaren aurrerakina, 2009ko UFFFren saldo negatiboarengatik.

(2) - Eusko Jaurlaritzaren interesik gabeko aurrerakina barne (2010eko murrizketa eta 2011ko berria)

(3) - 2014ko aurrekontuko itxierako estimazioen arabera

(4) - 2015eko aurrekontuko datuen arabera, mailegu berririk gabe

Maileguen zorra lotzen badugu Udalaren diru-sarrera arrunt edo korronteekin eta 1990-2015 aldiko eboluzioarekin, koadro hau daukagu:



MAILEGUEN ZORRA LOTZEA DIRU-SARRERA ARRUNTEKIN
1990-2013 ALDIKO EBOLUZIOA

EKITALDIA	ZORRA 12/31N	LIKID. ESKUB. ERAG. ARRUNT.	%G./ SARRERA ARRUNTAK
1990	4.398,2	9.767,6	45%
1991	5.569	10.862,7	51,3 %
1992	7.286,7	12.550,9	58,1 %
1993	9.685,3	12.337	78,5 %
1994	11.741,4	13.078	89,8 %
1995	13.052,2	13.477,7	96,8 %
1996	12.001,6	14.944,8	80,3 %
1997	11.025,6	15.971,9	69 %
1998	9.992,4	16.194,9	61,7 %
1999	8.852,3	17.340,4	51 %
2000	7.728,4	19.833,4	39 %
2001	8.375,1	18.784,2	44,6%
2002	8.935,3	19.167,7	45,7%
2003	7.506,1	21.070,8	35,6%
2004	5.821,6	24.461,2	23,8%
2005	10.004,7	24.549,4(*)	40,8%
2006	9.874,7	27.650,8	35,7%
2007	8.647,5	28.870,84	30%
2008	7.587,2	28.469,48	26,6%
2009 (zor moduan 2009 UFFF zenbaturik)	9.582,8	26.072,0	36,7%
2010	8.179,3	27.608,6	29,6%
2011	9.144,5	25.631,8	35,7%
2012	6.706,3	26.665,2	25,2%
2013	4.393,7	27.335,6	16,1%
2014 (itxiera estim. arabera)	3.328,7	28.845,7	11,5%
2015 (aurrek. Arabera)	2.366,5	28.850	8,2%


2005az geroztik, aprobeztamendu lagapen monetarizatuak eta hirigintza kargak ez dira zenbatzen diru-sarrera arrunt moduan



Koadro hau eta aurrekoa aztertuz gero, ikusiko dugu 1991 – 2015eko bukaerako aldiari maileguen zorra, termino absolutuetan, nahiz eta %58 gutxitu den, diru-sarrera arruntei dagokienez ekitaldi bakoitzaren bukaeran, eta ikusiko dugu 2015aren bukaeran dugula aztertutako aldiaren unerik onenean, izan ere, zor horiek ia ez dira iristen Udalaren urteko diru-sarrera arrunten %8ra. Hau da, zorraren zenbatekoa nabarmen gutxitu da eta gutxitze hori askoz handiagoa da Udalaren gaitasun ekonomikoari buruz alderatzen badugu.


Nolanahi ere, aurreko aurrekontuetan aipatu bezala, zorraren tamainatik finantza osasun onaren konklusioa, egia bada ere, kontu handiz erabili behar dugu, izan ere, oraingo egoeran beste arrisku batzuk daude, aurreko ekitaldietan ez zeudenak, adibidez, oraingo zerbitzuei eustea diru-sarrerak hazteko zailtasun handiak dituzten testuinguru batean, kobraketetarako berankortasun arazoak, beste administrazio batzuek diru-laguntza programak murriztu izana, maniobra marjina urria inbertsioak eta aurrekusi gabeak finantzatzeko (gastu arrunten eta lehendik hartutako konpromiso finkoen ondorioz), eta, gainera, eztabaidarik garrantzitsuena egiteke egonda, udal legearena, hain zuzen, eskumenak eta haien finantzabideak, modu erabakigarrian baldintzatu ditzakeena, batetik, etorkizunean eman beharreko zerbitzuak garatzeko aukerak eta, bestetik, horretarako dugun finantza gaitasuna.

Honekin batera doazen grafikoetan ikusi daiteke zein eboluzio izan duten 1990/2015 aldiari maileguen zorraren aldagaiak eta diru-sarrera arruntek (2015. urteko datuak, aurrekontuaren kopuruaren arabera)





1990/2015 MAILEGUEN ZORRAREN EBOLUZIOA ETA OHIKO DIRU-SARREREKIN DUEN LOTURA
MILA EUROETAN





DIRU-SARREREN AURREKONTUA - 2015

Zenbatekoa da 31.525.278,80 euro eta %2,54ko jaitsiera du 2014 urterako hasieran onartutako AUKEAren eta Udalaren aurrekontuen batuketa finkatuari buruz.

Aurreko ekitaldiari buruz 2015eko aurrekontuaren kapituluz kapituluko eboluzioa aztertu ondoren, koadro hau daukagu:

2015-2014 AURREK. EBOLUZIOA, KAPITULUKA (MILA EUROTAN)

KAPITULUA	AURREK 2015	%/GUZ.	AURREK 2014	% GUZ.	ALDAKETA 2014/2015	2015/14
I ZUZENEKO ZERGAK	7.842,5	24,88%	7.792,5	24,09%	50	0,64%
II ZEHARKAKO ZERGAK	550	1,74%	550	1,70%	0	0%
III TASAK ETA PREZIOAK	7.256,4	23,02%	7.133,2	22,05%	123,2	1,73%
IV TRANSFER. ARRUNT.	14.057,6	44,59%	13.744,8	42,49%	312,8	2,28%
V ONDARE SARRERAK	238,1	0,76%	243,2	0,75%	-5,10	-2,10%
VI ONDAREA SALTZEA	206,2	0,65%	291,2	0,90%	-85	-29,19%
VII KAPITAL TRANSF.	216,5	0,69%	1.266,2	3,91%	-1.049,7	-82,90%
VIII FINAN.AKT. ALDAK.	90	0,29%	107	0,33%	-17	-15,89%
IX FINAN.PASIB. ALDAK.	1.068	3,39%	1.218,5	3,77%	-150,5	-12,35%
GUZTIRA	31.525,3	100%	32.346,6	100%	-821,3	-2,54%

Koadro honen bidez 2015eko aurrekontuan izandako aldaketa nagusiak jasoko ditugu:


- Udaleko zerga-arloarekin (I, II eta III kap.) lotutako diru-sarrereren kapituluetako protagonismoa handitu egin da, baterako gehikuntza bat dute termino absolutuetan, 173 mila euro, eta ehunekotan, aurrekontuaren diru-sarrera guztiei buruz, pasatzen da %47,8 izatetik %49,6 izatera.
- IV. Kapituluan (Transferentzia Arruntak) igoera izan dugu bai termino kuantitatiboetan (+312 mila euro) bai portzentaje terminoetan (%42,5etik %44,6




izatera pasatu da), 2014ko diru-sarreraren aldean. Igoera horren arrazoi nagusia Foru Funtzaren diru-bilketako perspektiba hoberenetatik dator.

- VII. Kap. – Kapital Transferentzietatik datozen baliabideak nabarmen jaitsi dira, eta pasatu dira diru-sarrera guztien %3,9tik %0,7ra, bereziki Goiru-Takolo ibilbidearen obra egiteko Foru Aldunditik 2014ko diru-sarrera berezirik ez dagoelako, 0,96 milioi euro.
- IX. Kapitulua-Zorpetzearen garrantzia pasatzen da %3,8tik %3,4ra. Dena den, aldagai honen alderaketa erlatibizatu egin behar da eta ez du larregiko baliorik, izan ere, aurrekontuan jasotako kopurua, azken urteotan, erreferentzia hutsa izan da, aurrekontua egokitze aldera. Egiaz, azken 3 ekitaldietan ez dugu kontratatu mailegurik, eta 2015erako, aurrekontuetan sartuta badago ere, estimatu dugu ez dugula behar izango ezin kopururik.

Honekin batera doazen grafikoetan 2015eko aurrekontuaren kapituluz kapituluko eboluzioa ikusi dezakegu, 2014ko aurrekontuaren aldean, bai eta diru-sarreraren aurrekontuaren kapituluz kapituluko portzentaje banaketa ere.





Azkenik, adierazi behar dugu 2015ean Udalak izango dituen diru-sarreretako 100 euro bakoitzeko

- **49,64** datoz **udaleko zerga-arlotik** (diru-sarrereren I, II eta III. kapituluak).
- **44,59** datoz beste erakunde edo administrazio batzuen **diru-laguntza arruntetatik**, horietatik 40,90 datoz **Udalak Finantzatzeko Foru Funtsetik**.
- **0,76** lortzen dira **ondare diru-sarreretatik**.
- **0,65** Udalak espero du lortzea **ondare saltzetik edo hirigintza karga eta aprobetxamenduen diru-sarreretatik**.
- **0,69** lortzen dira inbertsioak finantzatzeko jasotako **kapital diru-laguntzetatik**
- **0,29** datoz **langileen aurrerakinak itzultzetik** eta beste kontzeptu batzuetatik.
- **3,39** lortuko genituzke “teorian” **zorpetzearen** bidez, hau da, sinatu beharreko mailegu berriak, nahiz eta, benetan, espero dugun ez sinatzea mailegurik.



Orain diru-sarreraren aurrekontuaren aldaera nagusiak aipatuko ditugu.

LEHEN KAPITULUA – ZUZENKO ZERGAK - 7.842.500 euro

Igotzen da %0,64, 2014ko aurrekontuaren aldean.

Aurrekontu aurreikuspenak kalkulatzeko, kontuan hartu ditugu 2014ko benetako diru-sarrerak, Kapitulua honetako zergak arautzen dituzten Ordenantza Fiskaletan 2015erako onartutako zerga aldaketak, 2014ko urriaren 21ean osoko bilkuran hartutako akordioaren arabera, bai eta diru-sarrera berezi batzuen estimazioa ere, ikuskaritza lanetatik datozen zerga likidazioen ondorioz.

Horri dagokionez, onartutako aldaketa nagusiak hauek dira:

Hirilur OHZ eta Landalur OHZ – Hiri izaerako ondasunetarako %1eko zerga tipoa gehitzea, eta industria lurzoruetan hiri ondasunetarako 0,2012 eta 0,5037 zerga tipo orokor bat ezartzea, eraikuntzaren balio galeraren ondorioz (amortizazioa edo urteko balio galera) katastro balioaren galera konpentsatze aldera. Lortu nahi dugun helburua da 2015ean OHZ-ren kontzeptuan ordaindu beharreko urteko kuota izatea 2014koaren antzekoa.

Hirilur OHZn %50eko errekarua mantendu dugu, ohiko etxebizitza ez diren bizitegi erabilerako ondasun higiezinarako, 4/2012 Foru Arauan, uztailaren 4koa, ezarritakoaren arabera, errekarua ez aplikatzeko kasu berriren batekin eta 2014an zeuden beste kasu batzuk aldatuz edo egokituz.

b) Jarduera ekonomikoen gaineko zerga – Ez dago aldaketarik; 2014ko zerga tipoak mantendu dira.

c) Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga – Ez dago aldaketarik, eta 2014ko zerga tipoak mantendu dira.

d) Hiri izaerako lurren balio gehitzeari buruzko zerga – Ez dago aldaketarik, eta 2014ko zerga tipoak mantendu dira.

BIGARREN KAPITULUA – ZEHARKAKO ZERGAK - 550.001,00 euro

2014ko aurrekontuan izandako kopuru bera.

Kapitulua honetako diru-sarrerako kontzeptu bakarra da Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga eta ez du izan aldaketa esanguratsurik 2015erako, zerga tipoa legez baimendutako gehiengan dago eta (%5 obra, eraikuntza edo instalazioaren balioaren gainean).

Diru-sarreraren kontu-saila bereizten jarraitzen dugu (Garaia-tik datorren EIOZ eta EIOZ orokorra, gainerako eremuetakoa), baina Garaia guneari dagokionez, aukeratu dugu 1 € jartzea aurrekontuetan, bai gastuetan bai diru-sarreretan, baina handitu egin ahal izango da. Horrela, diru-sarrerarik lortuz gero, horien kontura Garaia S.Coop.ri ordaindu beharreko kopuruak handitu



ahal izango dira, 2010eko urriaren 7an osoko bilkuran hartutako akordioaren arabera, Garaia S.Coop. entitatearen kapitala handitzea onartu baitzuen Udalak, eta baldintza zen kopuruak jarriko zituela baldin eta zerga horren truke diru-sarrerarik benetan sortzen bada.

2015erako, kapitulu berberean, beste kontu-sail bat dugu, 2015ean egin beharreko ikuskaritza lanen ondorioz lortu daitezkeen diru-sarrerak jasotzeko dena, 50.000 euroan baloraturik, hortik bereiztea eta bereizirik kontabilizatzea komeni dela Udalak uste baitu.

HIRUGARREN KAPITULUA – TASAK ETA PREZIOAK - 7.256.350 euro

Igotzen da %1,7, 2014ko aurrekontuaren aldean.

Udalbatzarrak, 2014-10-21koa, onartutako zerga aldaketa bakarrak: %2ko gehitzea edateko uraren horniduraren tasan, bai eta hainbat aldaketa tekniko ere (tarifak aldatu barik) zaborren zerbitzuko kudeaketa arauetan, mahai-aulkiez bide publikoa hartzean azalera zenbatzeko irizpideak, eta tasa berriak sortzea (eragin ekonomiko txikiaz), jai ekintzetan baxera berrerabilgarria maileguan hartzea erregulatzeko eta Kurtzetxikin animaliak larrean ibiltzeko prezioak. Gainerako tasek ez dute aldaketarik/igoerarik izan, eta 2014ko tarifak mantendu dira.

Aurrekontu aurreikuspenak kalkulatzeko, oinarri hartu dugu ekitaldiaren itxierako estimazioei buruzko informazioa.

Udalaren 2015eko aurrekontuaren berritasun moduan, kirol sailaren diru-sarrerak sartu ditugu (2014 arte AUKEAren aurrekontuan), eta guztira da 697.600 €.

Azkenik, adierazi behar dugu kapitulu honetako hiru diru-sarrera kontzeptu nagusiak direla ur eta zabor tasak eta zerbitzuak hornitzen dituzten enpresek jabetza publikoa okupatzearen tasa, eta horiekin batera kirol sailaren diru-sarrerak; horiek guztiak kapitulu honetako zenbatekoaren %79,2 dira.

LAUGARREN KAPITULUA – TRANSFERENTZIA ARRUNTAK - 14.057.609 euro

Balio absolutuetan 0,31 milioi euro handitu da, 2014ko aurrekontuaren aldean, eta %2,3koa portzentaje terminoetan.

Gehikuntza hori azaltzeko, hona hemen arrazoi nagusiak:

- Lehena, memoria hasieran aipatua, 2015erako Foru Funtsaren diru-sarreraren estimaziotik dator; Arrasaterentzat 12.894.359 euroko kopurua da, 2014ko aurrekontuan jarritako kopurua baino 0,41 milioi euro gehiago gutxi gorabehera. Alderatzen badugu 2014ko aurre likidazioari edo itxiera estimazioari buruz, gehitze handixeagoa izango genuke (*0,44 milioi euro, +%3,6), izan ere, espero dugu 2014an benetako kopurua geratzea hasieran aurrekontuan jasotako kopuruaren azpitik. Kalkulu hori, era berean, Foru Aldundiak horri buruz egindako aurreikuspenetan oinarrituta dago, zehazki %4,99ko igoera bat hitzartutako zergengatik diru-bilketan, 2014ko aurrekontuko kopuruaren aldean (2014ko itxierako estimaziori buruz %5,53koa izango litzateke igoera). Gehikuntza hori egotzi dakioke, oinarrian, faktore hauen elkartzeari:



- a.- Ekonomia hazi egingo delako aurreikuspena, termino errealean, %1,7 hazi ere.
- b.- Zeharkako zergez eta zerga aldaketa batzuez diru-bilketan jasoko den kontsumoan hobetzeko estimazioa.
- c.- Eusko Jaurlaritzari Gipuzkoak eman beharrekoaren koefiziente horizontala aldatzea, eta %33,06tik %33,03ra pasatu da.

Azken batean, ematen du 2015eko foru bilketaren aurreikuspena eta, horren ondorioz, Foru Funtzaren kopuruak ekonomiaren hazkuntza aurreikuspen batean oinarritzen direla (baikorregia ote?).

- 2014ko gehikuntza izateko dugun bigarren arrazoia dator Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzetatik, zehatzago esateko HABEtik, Udal Euskaltegiko langileen gastuak finantzatzeko; 34 mila euro igo da (▲%10) eta lehendik ere eguneratze nabarmena izan zuen (ez zen agertu 2014ko hasierako aurrekontuan) 2013/2014 ikasturteko diru-laguntzan.

Aitzitik, enplegua sustatzeko programetarako diru-laguntzengatik diru-sarreraren aurreikuspenak jaitsi dira, -112 mila euro (▼%65) 2015ean aurrekontuan jarriak irizpide zuhur batekin, hartarako laguntza deialdirik baieztatu barik daudelako (2013ko bukaeran, berriz, aterata zeuden 2014ko programak). Beste aldaketa aipagarri batzuk gizarte ongizateko sailaren programei dagozkie; diru-sarreraren aurreikuspenak igo egiten dituzte (pobrezia plana) edo jaitsi egiten dituzte (etxez-etxekako zerbitzurako laguntza), 2015erako aurreikusitako gastuaren edo diru-sarreraren kopuru eguneratuen arabera.

Kapituluko gainerako kontu-sailetan, finkatuta dauden programei (kultura jarduerak, liburutegiak, Mankomunitatea-Udalako IE, Eusko Jaurlaritza-EBPN, Aldundia-gazteria, kirola eta Emakumea, eta abar) dagozkien zenbatekoak jaso ditugu aurrekontuan.

BOSGARREN KAPITULUA – ONDARE DIRU-SARRERAK – 238.150 euro

Jaisten da %2,1, 2014ko aurrekontuaren aldean. Kapituluhonek ez du garrantzi espezifiko larregirik udaleko diru-sarreretan. 2014ko ekitaldiari buruz duen aldaketak oinarria du, nagusiki, azoka plazan saltoki itxi eta irekiak adjudikatzeagatik egindako diru-sarrera aurreikuspenetan, 2015eko urte bukaeran egitekoak. Edozelan ere, komeni da gogoan izatea diru-sarrera kontzeptu hau guztiz lotuta dagoela azokan egingo den birmoldaketarekin eta, egia esan, arrazoi horrengatik (une honetan birmoldatzeko eraikuntza proiektuaren zehaztasun falta, eta gero, behin proiektua zehaztu ondoren, interesdun izan daitezkeenei bidaltzea, administrazio emakidak egiteko) 2014rako hasieran pentsatutako diru-sarrera atzeratu egin dugu 2015eko aurrekontura. Azken batean, nahiz eta ordu asko eman eta ahalegin handia egin proiektuaren inguruan, jabetu behar dugu 2015ean gai batzuk zehaztu barik daudela, eta horiek zuzenean eragingo diote etorkizuneko udal azokari (dimentsionamendua, interesdunak zehaztea, ezarri beharreko jarduerak, obra proiektuaren kostuak, balizko emakidadunei eman beharreko kopurua, emakidak ordaintzeko mekanismoak, obrak exekutatu bitartean instalazioen kokalekua eta ezaugarriak, eta abar).

Gainerako diru-sarrerei buruz, diru-sarrera kontzeptu nagusia dator errenta edo alokairuetatik; horien dotazioa mantendu egin dugu 2014koari buruz, 150 mila euro, eta beste



kontzeptu aipagarri batek, finantza diru-sarrerak, 15 mila euro (▼%50), gutxitu egin dugu, izan ere, diruzaintza soberakin gutxiago izatea aurreikusi dugu, gordailuen ordainketaren oraingo beherakadarekin batera.

SEIGARREN KAPITULUA – INBERTSIOAK INORENTZEA - 206.211 euro

Jaisten da %29,2, -85 mila euro, 2014ko aurrekontuaren aurreikuspenaren aldean.

Kapitulu honetan, erabilitako etxeko olio biltzeko patentearen aprobetxamendua eta ustiapena lagatzeko hitzarmenetik datozen diru-sarrerak izan ezik, OLIO3R enpresekin sinatutakoa 2014/5/13an, 2014/3/19ko osoko bilkuraren akordioa hartu eta gero (Fagor S.Coop. eta EKO3R enpresarekin sinatuta indarrean zegoenaren ordeztuz, patentea ustiatzeko ardura zuen sozietatea SL bihurtzearen ondorioz, enpresa berria bazkide berriak sartuz), behar bezala zenbatuta daudenak, gainerako kontzeptuak, gaurko egunez, diru-sarrerako esperantza generiko hutsak dira, diru-sarrerako aurrekontu aurreikuspenak estaliko duen arrazoizko garapen maila bat duen operazio zehatzik ez dago eta.

Edozelan ere, historikoki diru-sarrerak lortu direnez kontzeptu horien truke eta sumatzen denez operazioen bat gauzatzeko aukera, kopuru “zuhur” bat jarri dugu aurrekontuan, 120.000 euro, eta dagokion jarraipena eta hurbileko kontrola izan beharko du, nahi ez dugun orekarik eza ez izateko 2015eko kontuetan. Kasu guztietan, hartarako egoerarik egokiena ez bada ere eta 2014an Zerrajeran eta Uarkapen dauden lokaletan salmenta esanguratsurik ere izan ez baditugu ere, Udalak ondareak saltzeko borondatearekin jarraitzen du, interes publikoarentzat estrategikoak jotzen ez diren aktiboak, eta horretarako ez du baztertzen enkante berri bat egitea 2015ean.

Kargen eta hirigintza aprobetxamenduen aurreikuspenei dagokienez, diru-sarrerak lortzeko bidea dugu eremu jakin batzuk garatzen direnean (Udala, Zalduspe, eta abar), nahiz eta aurrekontuan jaso 25.000 euroko estimazio bat diru-sarreretan kontu-sail bakoitzean.

ZAZPIGARREN KAPITULUA – KAPITAL TRANSFERENTZIAK - 216.500 euro

Jaisten da %82,9, -1,05 milioi euro, 2014ko aurrekontuaren aurreikuspenaren aldean.

Murrizketa horren azalpena memoriaren hasieran aipatu dugu eta Goiru-Takolo ibilbidearen obra egiteko aurreikusitako operazio espezifikoak da, 958.204,49 euroko zenbatekoan, errepideen titulartasunen eskumen egokitze baten esparruan, diruz finantzatu duena Foru Aldundiak, hartarako idatzitako hitzarmena edo akordioa sinatu eta gero. 2014ko diru-sarrera atipiko edo berezi horrek ez du jarraipenik 2015ean; horregatik jaisten da hainbeste kapitulu honetako aurrekontu aurreikuspena.

Energia efizientzia hobetzeko inbertsioak (argiteria publikoan inbertsioak, luminaria zaharrak LED teknologiadunordeztea), 60.000 euroan.

Atal honetan egokia da errepikatzea aurreko ekitaldietan egindako hausnarketa, Udalaren inbertsio jardura (bai proiektuetan bai epe eta zenbatekoetan) onartzen joan daitezkeen diru-laguntza programei egokitzeko beharri buruzkoa, Udalak uste baitu oraingo egoera



ekonomikoan laguntzak lortzea dela erabakigarria, tamaina bateko inbertsioen exekuzioa bideragarri egin nahi badugu finantza ikuspegitik.

Horri dagokionez, modu azkar batean erantzuteko, hartarako idatzi litezkeen laguntza programak kokatze aldera eta horien kostuan Udalari egokitzen zaion portzentajea finantzatu ahal izateko, aurrekontuak betetzeko arauetan jaso dugu, behar izanez gero, milioi bat euroan gehitzeko aukera 2015eko ekitaldian sinatu beharreko maileguen zenbateko osoa, betiere diru-laguntza bidez lortutako finantza portzentajeak inbertsioaren guztizko bolumenaren berdinak badira edo %40 baino handiagoak badira.

ZORTZIGARREN KAPITULUA – FINANTZA AKTIBOEN ALDAKETA - 90.001 euro.

Oso eragin txikia du aurrekontuan, eta Udalak langileei emandako aurrerakinak itzultzetik datozen diru-sarrerak dira (ordainsari berezien aurrerakinaren kontu-saila, 2014an bezalaxe, euro batekin jarri dugu, baina handitzeko aukerarekin), kontzeptu horietarako onartutako gastuaren zenbateko bera.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA – FINANTZA PASIBOEN ALDAKETA - 1.067.956,80 euro

2015eko aurrekontuak “teorikoki” koadratzeko behar den kopurua da, hau da, planteatutako gastu guztiak finantzatzeko behar den diru-sarrera osagarria. Lehen esan dugu, memoriaren hainbat ataletan, zorpetze berriak izateko legezko mugak nahiz oraingo finantza baldintza txarrak ikusita, gobernu taldea saiaturik dela, ahal duen neurrian, mailegu berrietara ez jotzen; hortaz, 2014ko ekitaldiko itxieran soberakinik lortuz gero, seguruenik erabiliko dira kapitulu honetan aurreikusitako desbideraketa negatiboak konpentsatzeko. Hitzaurre horrekin, adierazi nahi dugu kapitulu honetan egindako aurreikuspena dela guztiz teorikoa eta, praktikan, espero dugula, azkenik, behar ez izatea.

Bestalde, memoria honetan ere adierazi dugu (eta aurrekontua betetzeko arauetan erregulaturik) formalizatu beharreko maileguen kopurua 2015ean handitu daitekeela beste milioi bat euroan, aurrekontua egonkortzeari eta finantza iraunkortasunari buruz ezarritako legezko betebeharrak bete behar direla kontuan izanik, finantzatzeko beharrak izanez gero horiek erantzuteko, beste administrazio batzuekin elkarrekin finantzatutako inbertsio proiektuetatik datozen beharrak, hain zuzen ere. Aurreikuspen hori egin dugu uste dugulako, nahiz eta une honetan ez jakin ziur aukerarik egongo den zentzu horretan, baietz izanez gero, ez litzatekeela logikoa izango hura exekutatzeari uko egitea, udal finantzaketarik ez dagoelako, are gehiago proiektu horiek laguntza portzentajeak eduki ditzaketenean, oso interesgarriak exekuzioa bideragarri egiteko. Aurrekontuaren agirian listoia ezarri dugu %40ko finantzaketa portzentajearen mailegu gehigarriaren bidea erabiltzeko, hori guztia kontuan izanik muga hori geroago berriro planteatu daitekeela, osoko bilkurak hala iritiz gero.

Edonola ere, ahalegin berezia egingo dugu 2015ean aurrekontua egonkortzeko dauden legezko baldintzak betetzeko, zorpetze garbia gehitu barik, ekonomia-finantza plan bat onartu beharrik ez izateko, praktikan, oraingo lege-esparrua aldatu ezean, 2016an ezingo genuke mailegu berririk lortu. Hori horrela da, esku-hartze batzuen izaerak eta egutegiak (batez ere azokako



birmoldaketa, 2 milioi euro inguruko aurrekontuarekin eta fase bakar batean egin beharrekoa) aholkatzen dutelako maniobra marjina hori 2016rako gordetzea. Azken batean, ahalegina egin dugu hurrengo Udaltzari uzteko jardun marjina nabarmena, zorpetze ikuspegitik, zor osoa hein handian murriztu baita, finantza entitateek eskaintako baldintzak hobetu direlako eta, azkenik, hurrengo gobernu taldeari uzteko zorpetzearen gehitze garbia egiteko aukera, geroago planteatu litezkeen inbertsio beharren arabera.

Azkenik, eta memoria honetan zehar aipatutakoaren osagarri gisa, aztertuko ditugu Udalaren zorpetze indizean eragiten duten aldagaiak, bai eta 1991-2015 aldian indize horren eboluzioa ere.

ZORPETZE INDIZEAN ERAGINA DUTEN ALDAGAIEN KOADROA 1991 - 2015 ALDIA

URTEA	ZOR BIZIA MAILEGUAK	INTERES TIPOA, 12/31n	OPER. ARRUNT. LIKID. ESKUB.	ZORPETZE INDIZEA
1991	5.569	13%	10862,7	9,9%
1992	7.286,7	15%	12.550,9	11,5%
1993	9.685,3	8,75%	12.337	11,5%
1994	11.741,4	8,65%	13.078	14%
1995	13.052,2	9,25%	13.477,7	15,6%
1996	12.001,6	6,35%	14.946	11,2%
1997	11.025,6	4,86%	15.971,9	9,6%
1998	9.992,4	3,36%	16.194,9	9,5%
1999	8.852,3	3,39%	17.340,4	8,6%
2000	7.728,4	5%	19.833,4	7%
2001	8.375,1	3,5%	18.784,2	7,8%
2002	8.935,3	2,9%	19.167,7	9,8%
2003	7.506,1	2,12%	21.070,8	8,6%
2004	5.823,6	2,16%	24.461,2	7,6%
2005	10.004,7	2,49 %	24.549,4	9,3 %
2006	9.874,7	3,73%	27.650,8	5,9 % (4)
2007	8.647,5	4,68%	28.870,84	5%
2008	7.587,2	3,45%	28.469,48	4,7%
2009	9.582,8 ⁽³⁾	1,2%	26.072,0	8,5% ⁽³⁾
2010	8.179,3 ⁽³⁾	1,52%	27.608,6	8% ⁽³⁾
2011	9.144,5 ⁽³⁾	2%	25.631,8	10,1% ⁽³⁾
2012	6.706,3 ⁽³⁾	0,75%	26.665,2	9% ⁽³⁾
2013	4.393,7	0,75%	27.335,6	4,1% ⁽⁴⁾
2014 ⁽¹⁾	3.328,7	0,40%	28.845,7	3,4%
2015 ⁽²⁾	2.366,5	0,40%	29.944,6	2,4%

(1) Itxiera estimazioaren arabera.(aurrek. datuen arabera)

(2) Ez da beharrezko jotzen 2015erako aurreikusitako mailegua

(3) Zorraren eta zorpetzearen eraginetarako, 2009ko UFFFGatik Foru Aldundiarekin dugun saldo negatiboa sartuz, intzidentzia handia baitu finantza kargetan, hiru urtean ordaindu behar baitugu, 2011-2013. Zor moduan zenbatu ezean, 2009, 2010, 2011 eta 2012ko zorpetze indizea izango litzateke, ekitaldi bukaeran, %4,5, %4,2, %6 eta %5, hurrenez hurren.

(4) Beheraka "ezohikoa" gertatu da, finantza kargak jaitsi direlako, 2005etik 2 mailegu guztiz amortizatzean. Antzeko egoera, 2009ko foru funtsaren saldo negatiboa itzultzea amaitu izanagatik eta 2 mailegu amortizatu/bertan behera utzi izanagatik.

(5) Aurrekontuan erabilitako interes tipoa, hurrengo urteko finantza kargak kalkulatzeko



Koadro honetan ikusi daiteke zelan erlazionatzen diren euren artean zorpetze indizea zehazten duten aldagaiak. Horrela, adibidez, 1993 urtean gertatukoa, 2,4 milioi euroan igo zen zor bizia eta, nahiz eta diru-sarrera gutxiago izan operazio korronteak direla-eta, horrek ez zuen ekarri zorpetze indizea igotzea, interes tipoa ikaragarri jaitsi zen eta.

Edozelan ere, interes tipoa egonkortu denez apur bat, 1996/2015, ikusten dugu zorpetze indizea dabilela zor biziaren arabera, amortizazio erritmoaren arabera eta diru-sarrera arrunten eboluzioaren arabera. Atal hauen eraginaren lagin garbia da behartuta gaudela hiru urtean Foru Aldundiari 2009ko UFFFen saldo negatiboa itzultzen, 3,3 milioi euro, ia bikoiztu egiten duena 2009ko ekitaldirako azken zorpetze indizea. Indize hori nabarmen jaisten da 2013tik aurrera, 2 mailegu guztiz amortizatu eta gero (Kutxa eta BBVA) eta behin betiko Foru Aldundiarekin dugun zorra kitatu eta gero.

Mailegu berriak eskatu ez dugunez 2011tik aurrera, interes tipoa egonkor jarraitzen duenez, zorraren zenbatekoa jaitsi denez eta diru-sarrera arruntak hazi egin direnez apurka-apurka eta etenik gabe, elementu horien guztien ondorioa da serie osoko zorpetze indize baxuenak legealdiko azken urteetan gertatu direla, zehazki 2013-2015 aldikoak.

Honekin batera doan grafikoa ikusi daiteke zein den zor biziaren eboluzioa, maileguetan eta baliabide arruntek likidatutako eskubideetan, eta zein den zorpetzearen eboluzioa 0tik %25era (baimendutako gehieneko muga gisara definiturik).

